

Ikerketa-zentroek eta unibertsitateek genero-berdintasunaren aldeko **jendaurreko konpromisoa** hartu behar dute erakunde horien funtsezko balioa den heinean, eta **politikak eta jardunbideak** garatu behar dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bizitza akademikoko zein lan-arloko alderdi guztietan sustatzeko, berdintasunaren arloko preskriptoretzat jardunez eta eredu izanez.

Horren harira, konpromiso hori gauzatzeko oinarriak ezartzea proposatu da, **dekalogo** honetan islatu den bezalaxe:

1. **Genero-ikuspegia** modu aktiboan txertatzea erakundeko eremu guztietan, bai jarduera zientifikoan bertan, bai erakundeen kudeaketan eta barne-prozesuetan.
2. Parekotasuna erakunde barruko maila guztietan bultzatzea, **batzordeetan, paneletan nahiz erabakiak hartzeko guneetan** emakume eta gizonen ordezkariak orekatua sustatuz eta genero-ikuspegia kontuan hartuz erabakiak hartzerakoan.
3. Genero-berdintasunerako bidean emandako aurrerapausoak erregularitasunez ebaluatu eta politikak eta jardunbideak horien arabera egokitzea ahalbidetuko duen **jarraipen-sistema** ezartzea.
4. Erakundeetan emakumeen **garapen profesionala** eragozten duten oztopoak ezabatzen laguntzeko estrategiak garatzea.
5. **Ordainsariei** dagozkien genero-etenak identifikatzeko azterketak erregularitasunez egin, argitaratu eta ezagutzera ematea, eta horietan jasotako datuak soldaten genero-etena ezabatzea xede duten neurri zehatzak hartzeko erabiltzea.
6. Genero-berdintasunari buruzko **prestakuntza eta sentsibilizazioa** eskaintzea erakundeko langile guztientzat.
7. **Komunikazioan** berdintasun-irizpideak txertatzea, barneko zein kanpoko komunikazio guztietan emakumeen eta gizonen berdintasunezko irudia sustatzen dela ziurtatuz eta genero-ikuspegia duten ikerketen inpaktu soziala sustatuz, gizarte-eraldaketan aurrera egiten laguntzeko.
8. **Familia, lana eta norberaren bizitza uztartzea** bermatuko duten politikak eta neurriak garatzea, erakundeko pertsona guztien **erantzunkidetasuna** sustatuz, antolaketa erraztu eta berezko lan-karga duten merezimendu gutxiagoko zereginak barne.
9. Genero-indarkeriarik gabeko **espazio seguruak** bermatzeko neurriak eta politikak garatzea, **identitate eta errealitate guztiekiko** errespetuan oinarritutako lan-ingurune atsegina lortzen laguntzarren.
10. **Lankidetzaren sareak bultzatzea** eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egitea helburu duten erakundearen barruko zein kanpoko ekimenetan parte hartzea.